Unai Amezaga Abizu (1. guztira 1)
Herritarren partaidetzako tek. / Téc. participación ciudadana
Sinaduraren data: 22/02/2023
HASH: 9841abac03ad50aaa4e921a587e54d9f

GALDAKAOKO HAURREN KONTSEILUAREN DINAMIZAZIO LANAK KONTRATATZEKO PLEGU TEKNIKOAK

1. Aurrekariak

2021eko apirileko Galdakaoko Udalbatzak aho batez onartu zuen Galdakaoko Udala Haurren Hiria sarean sartzea. Erabaki honekin lortu nahi den helburuetako bat da haurrak komunitatearen eraikuntzan parte hartzearekin lotutako proiektuak abian jartzeko sareak ematen dituen laguntzez baliatu ahal izatea. Haurren Kontseiluan ez dira amaitzen komunitatea eraikitzeko prozesu guztietan haurren parte-hartzearen esparrua eta aukerak. Halabaina, politika publikoen esparruan gehiegitan ikusezin bihurtutako edo hartzaile-rol pasibora baztertutako kolektibo bat dagoela ikusarazteko modu egokia dela uste dugu. Horregatik, Galdakaoko Udaleko Partaidetza Arloaren helburu bat da kontseilu hori sortzeko urratsak ematen hastea.

2021eko irailetik 2022ko urtarrilera bitartean Galdakaoko Udalak Haurren Kontseilu eredu propioa definitzeko lanak egin zituen. Honetarako, kontseiluaren definizioan zeresana duten eragileekin (udaleko arduradun politiko eta teknikoak, gizarte eragileak eta ikastetxeak) harremanetan jarri zen abiapuntuaren diagnosia egiteko eta kontseiluaren ezaugarri nagusiak adosteko. Lan honen emaitza 2022ko otsailetik ekainera bitartean egindako esperientzia pilotuan gorpuztu da.

Beraz, plegu hauek behin betiko definizioa jasotzen dute.

2. Galdakaoko Haurren Kontseilua

Haurren Kontseilua Galdakaoko Udalak sustatutako proiektua da, herriko haurren eta Udalaren arteko elkarlana bultzatu eta gizarte kohesioa indartu nahi dituena. Haurren ikuspegia udal proiektu eta politiketan txertatzea

PLIEGOS TÉCNICOS PARA LA CONTRATACIÓN DE LOS TRABAJOS DE DINAMIZACIÓN DEL CONSEJO DE INFANCIA DE GALDAKAO

1. Antecedentes

El Pleno del Ayuntamiento de Galdakao, en abril de 2021, aprobó por unanimidad la integración del Ayuntamiento de Galdakao en la Red Ciudad de la Infancia. Uno de los objetivos que se persigue con este acuerdo es que los niños y niñas puedan beneficiarse de las ayudas que ofrece la red para poner en marcha proyectos relacionados con la participación en la construcción comunitaria. En el Consejo de la Infancia no terminan el marco y las oportunidades de participación de los niños y niñas en todos los procesos de construcción de la comunidad. Sin embargo, consideramos que es una forma adecuada para visibilizar la existencia de un colectivo excesivamente invisibilizado o excluido a rol receptor pasivo en el marco de las políticas públicas. Por ello, un objetivo del Área de Participación del Ayuntamiento de Galdakao es iniciar los pasos para la creación de dicho Consejo.

Entre septiembre de 2021 y enero de 2022, el Ayuntamiento de Galdakao realizó los trabajos para la definición de su propio modelo de Consejo de la Infancia. Para ello, se contactó con los agentes implicados en la definición del Consejo (responsables políticos y técnicos municipales, agentes sociales y centros educativos) para realizar un diagnóstico de partida y consensuar las principales características del Consejo. El resultado de este trabajo fue la definición tentativa del consejo, que se ha materializado en una experiencia piloto iniciada en febrero y finalizada en junio de 2022.

Así, los presentes pliegos recogen una definición definitiva del consejo a implementar.

2. El Consejo de Infancia de Galdakao

El Consejo de la Infancia es un proyecto promovido por el Ayuntamiento de Galdakao que pretende impulsar la colaboración entre los niños y niñas y el Ayuntamiento y reforzar la cohesión social. Es el órgano formal de participación que

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 12

ahalbidetuko duen parte-hartze organo formala da.

2.1. Haurren Kontseiluaren oinarria

- Eginez ikastea

Haurren artean parte-hartzearen kultura sustatu nahi da eta herritartasun esperientziak bizitzeko aukera eman nahi zaie. Parte-hartzea praktikatik eta esperientziatik ikasten da, eta kontseiluan txikitatik herriko gaien inguruan hausnartuz, iritziak emanez eta proposamenak eginez, esperientzia aberasgarri eta esanguratsuak sortu nahi dira umeengan. Aldi berean, etorkizuneko herritar helduengan jarrera aktibo eta parte-hartzailea indartzea ere bilatzen da.

- Elkar ulertzea

Egunerokoan errealitate anitzak bizi dituzten umeen artean esperientziak eta ikuspegiak partekatzeko espazioa sortu nahi da. Zentzu horretan, Haurren Kontseiluak enpatia lantzeko eta besteengandik ikasteko espazio izan nahi du, beste pertsona batzuekin eta horien ideiekin elkarreragiteko aukera emanez eta eta bestelako esperientziak ezagutzea ahalbidetuz.

- Zubiak eraikitzea

Udalaren eta umeen artean elkarrekintza espazioak sortu nahi dira, Udal politiketan haurren ikuspegia eta proposamenak txertatzea ahalbidetuz eta, aldi berean, haurren artean udalaren funtzionamendua eta barne-prozesuak ezagutzera emanez. Bi norabidetan lan egingo duen proiektua da, pausuz pausu, herriko elkarteekin eta umeen inguruan dauden eragileekin ere harremanak sortu nahi dituena.

2.2. Eraketa prozesua

Galdakaoko Haurren Kontseilua Galdakaon bizi diren eta bertako ikastetxeetan ikasten duten 25[1] umek osatuko dute. Taldekideak ez dira udalerriko haurren ordezkari izango, Kontseilua ez baita haurren ordezkaritza-organoa, parte-

permitirá integrar la perspectiva de la infancia en los proyectos y políticas municipales.

2.1. Fundamentos del Consejo de Infancia

- Aprender haciendo

Se trata de fomentar una cultura de participación entre los niños y niñas y de posibilitar la vivencia de experiencias cívicas. La participación se aprende de la práctica y de la experiencia y en el Consejo se pretende generar en los niños y niñas experiencias enriquecedoras y significativas a través de la reflexión, la opinión y la propuesta de temas locales desde edades tempranas. Al mismo tiempo, se busca reforzar una actitud activa y participativa en la ciudadanía adulta del futuro.

- Entendimiento

Se trata de crear un espacio para compartir experiencias y visiones entre niños y niñas que viven realidades diversas en el día a día. En este sentido, el Consejo de la Infancia pretende ser un espacio para trabajar la empatía y aprender de los demás, permitiendo la interacción con otras personas y con sus ideas y posibilitando el conocimiento de otras experiencias.

- Construir puentes

Se trata de crear espacios de interacción entre el Ayuntamiento y los niños y niñas, posibilitando la integración de la visión y propuestas de los niños y niñas en las políticas municipales, al mismo tiempo que se da a conocer entre los niños y niñas el funcionamiento y los procesos internos del ayuntamiento. Es un proyecto que trabajará en dos direcciones, paso a paso, para establecer relaciones con las asociaciones del municipio y con los agentes que rodean a los niños y niñas.

2.2. Proceso de constitución

El Consejo Infantil de Galdakao estará compuesto por 25 niños y niñas residentes en Galdakao que estudian en sus centros escolares. Los miembros del grupo no representarán a los niños y niñas del municipio, ya que el Consejo no

[1] Konpuru hau alda daiteke ikastetxe bakoitzeko gela kopuruaren arabera. / Esta cantidad puede variar en función del número de aulas por cada curso en cada centro.

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 12

hartze organoa baizik. Kontseilukideak parte-hartzen duten norbanakoak izango dira, eta proiektuaren beharren eta nahien arabera zubi lana egingo dute beraien klasekideekin informazioa helaraziz, proposamenak jasoz edo eztabaidak planteatuz (baldin eta ikastetxeak gaiak gelan lantzeko prest azaltzen badira)
Udalerriko bost ikastetxeetako (Aperribai, Eguzkibegi, Urreta, Gandasegi eta Unkina)

es un órgano de representación de los niños y niñas, sino un órgano de participación. Los miembros del Consejo serán personas individuales participantes que, en función de las necesidades y deseos del proyecto, harán de puente trasladando información a sus compañeros y compañeras de clase, recogiendo propuestas o planteando debates (siempre que los centros estén dispuestos a trabajar los temas en el aula).

Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleek osatuko dute taldea. 4. eta 5. mailako gela bakoitzeko ume batek parte-hartuko du Kontseiluan, eta salbuespen bakarra Aperribai eskola izango da. Aperribai eskolan gela bakarra dagoenez maila bakoitzean, 2 umek parte hartuko dute gela bakoitzetik, talde-oreka bilatu eta Aperribaiko umeen parte-hartze esperientzia erosoagoa eta atseginagoa izan dadin[2].

El grupo estará formado por el alumnado de 4º y 5º de Educación Primaria de los cinco centros escolares del municipio (Aperribai, Eguzkibegi, Urreta, Gandasegi y Unkina). En el Consejo participará un niño o niña por cada aula de 4º y 5º curso, con la única excepción de la escuela Aperribai. Como en la escuela de Aperribai hay una única clase en cada nivel, participarán 2 niños/as de cada clase para buscar el equilibrio de grupo y que la experiencia de participación de los niños/as de Aperribai sea más cómoda y placentera[3].

Kontuan izan beha da 2022/2023 ikasturtean Kontseiluan martxan egon dela eta, beraz, lehen ikasturte honetan kide izan diren LHko 4. mailako ikasleek kontseiluan jarraituko dutela 2023/2024 ikasturtean zehar 5. mailako ikasle gisa. Beraz, 2023ko irailan LHko 4. Mailako ikasleak soilik hautatu behar dira.

Hay que tener en cuenta que entre durante el curso 2022/2023 ya ha estado en marcha el Consejo, por lo que el alumnado de 4º de Educación Primaria que han paticipado en este curso en el Consejo continuará durante el curso 2023/2024 como alumnado de 5º. Por tanto, en septiembre de 2023 sólo habrá que seleccionar alumnado de 4º de Educación Primaria.

Hauxe da abian jarri beharreko prozesu zehatza:

Este es el proceso concreto a poner en marcha:

Ikastetxeetan aurkezpenak: ikastetxe bakoitzarekin aurkezteko sistema adostuko da. Bi eredu daude:

Presentación en los centros: se acordará con cada centro cuál de los dos sistemas de presentación se prefiere:

1 eredua: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien aurrean Haurren Kontseiluaren proiektua aurkeztuko da. Informazio orri bana emango zaie etxera eraman eta familiekin partekatu dezaten. Honen ondoren hautaketa egingo da eta familiei emaitzaren berri emango zaie hautatutako haurren gurasoen idatzizko baimena eskatzeko.

Alternativa 1: presentación ante todo el alumnado de 4º de Primaria el proyecto del Consejo de Infancia. Se les entregará una hoja informativa para que la lleven a casa y la compartan con sus familias. Posteriormente se seleccionarán los niños y las niñas y se notificará a las familias el resultado del proceso de selección para que autoricen la participación de sus hijos e hijas por escrito.

[2] Taldekide kopurua ikastetxeen lerro kopuruaren arabera kalkulatuko da, ulertuz, gela kopurua handitu edo gutxituz gero, gorabehera txikiak egon daitezkeela kontseilukideen zenbatekoan.
[3] El número de miembros del grupo se calculará en función del número de líneas de los centros, entendiendo que, si aumenta o disminuye el número de aulas, puede haber pequeñas oscilaciones en el número de miembros del Consejo.

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 12

2 eredua: familiei informazio-orria bidaliko zaie eta, horrekin batera, haurrek hautaketa prozesuan parte hartzeko baimena jasotzen duen orria bidaliko da. Honen ondoren hautaketa egingo da.

Haurren aukeraketa prozesua: taldekideen zerrenda osatzeko, bi prozedura ezberdin konbinatuko dira:

- Zozketa: Lehen Hezkuntzako 4. mailako klase bakoitzeko umeekin zozketa egingo da parte-hartzailea hautatzeko. Zozketa egiteko, klasekide bakoitzari ausazko zenbaki bat egokituko zaio, ondoren, klasekide guztiak zenbaki horien arabera txikitik handira ordenatzeko. Zerrenda horretako lehenengo umea izango da kide titularra, eta ordezkoa behar izanez gero, zerrendaren ordena jarraituko da (ordezkoa titularraren genero berekoa izango da). Zozketaren emaitzetan genero parekidetasuna bermatuko da zentro bakoitzean. Zozketa Udaleko Parte-hartze Arloarekin batera egino da.

- Izendapen zuzena: Kontseiluko ume taldean beti egongo da zentro bakoitzak zuzenean hautatutako ume bat. Ume horien hautaketa hurrengo galderan oinarrituko da: zein umerentzat izan daiteke bereziki abesgarria horrelako proiektu batean parte-hartzea? Galdera horri erantzuteko 2 irizpide baliatuko dira:

    - Kontseiluan parte hartzearen bizipenari etekin gehien atera ahal izatea. Kontseilua gelako dinamikatik irteteko aukera bat da, lagun berriak egitekoa inguru seguru eta gainbegiratu batean. Harreman sozialetan zailtasunak dituzten umeei, esaterako, ondo etorri ahal zaie kontseilua bezalako esperientzia batean parte hartzea. Umeak protagonistak sentituko dira Kontseiluan parte-hartuz, ikastetxeko "enbaxadore" edo bozeramaile bihurtuko dira eta horrek oso eragin positiboa izan dezake haien autoestimuan.

    - Aniztasun funtzionala edukitzea Aniztasun funtzionala duten umeen begirada beharrezkoa da kontseiluan.

Alternativa 2: remisión de carta informativa a las familias con inclusión de la hoja de autorización que habrán de firmar para autorizar la inclusión de su hijo o hija en el proceso de selección. Posteriormente se hará la selección.

Proceso de selección: para completar la lista de miembros del grupo se combinarán dos procedimientos diferentes:

- Sorteo: los niños y niñas de cada clase de 4º de Primaria serán sorteados para la selección del o la participante. El sorteo se realizará asignando un número aleatorio a cada miembro de la clase, para, a continuación, ordenar todos los miembros de la clase de menor a mayor número. El miembro titular será el primer niño o niña de dicha lista, y en caso de necesitar un suplente, se seguirá el orden de la misma (los y las niñas suplentes habrán de ser del mismo género que la persona titular). Se garantizará la paridad de género en los resultados del sorteo en cada centro. El sorteo se realizará conjuntamente con el Área de Participación del Ayuntamiento.
- Nombramiento directo: en el grupo de niños/as del Consejo siempre habrá un niño/a elegido directamente por cada centro. La selección de estos niños y niñas se basará en la siguiente pregunta: ¿para qué niños y niñas puede ser especialmente enriquecedora la participación en un proyecto de estas características? Para responder a esta pregunta se utilizarán 2 criterios:

    - Poder sacar el máximo partido a la vivencia de la participación en el Consejo. El Consejo es una oportunidad para salir de la dinámica del aula, para hacer nuevas amistades en un entorno seguro y supervisado. A los niños y niñas que tienen dificultades en sus relaciones sociales, por ejemplo, les puede venir bien que participen en una experiencia como el Consejo. Los niños y niñas se sentirán protagonistas participando en el Consejo, se convertirán en embajadores/as o portavoces del centro escolar, lo que puede influir muy positivamente en su autoestima.

    - La diversidad funcional requiere de la mirada de los niños y niñas con diversidad funcional en el Consejo. No

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 12

Izan ere, beste umeek dituzten beharrizan berdinak ez ezik, beharrizan berezkoak ere badituzte. Mugikortasun murriztua duen edo maila kongnitiboan mugak dituzten umeen errealitatea ere azaleratu behar da kontseiluan, eta hori ume hauek ez beste inork ez du egingo (hautatzen den umearen arabera, laguntzaile figurarik behar den erabakiko da. Erabaki hori haurraren gaitasunek eta behar espezifikoek baldintzatuko dute, eta aurreikusi daitekeen beharra da. Laguntza beharrezkoa balitz jarri egingo zaio, adjudikaziodunaren kontura).

sólo tienen las mismas necesidades que los otros niños y niñas. En el Consejo también debe aflorar la realidad de los niños y niñas con movilidad reducida o con limitaciones a nivel cognitivo, y esto sólo lo harán estos niños y niñas (dependiendo del niño o niña que se elija se decidirá si es necesaria una figura de acompañante. Esta decisión dependerá de las capacidades y necesidades específicas del niño o niña, una necesidad previsible. Si fuera necesario se habilitarán dichos apoyos por cuenta del adjudicatario).

- Jakinarazpena umeei eta familiei: Taldea osatuko duten parte-hartzaileen zerrenda familiei eta ikastetxeei jakinaraziko zaie. Aldi berean, kontseilukide berriei tutoreen bitartez jakinaraziko zaie hautatuak izan direla. Umeren batek parte-hartu nahi ez balu, zerrendako hurrengo umeari proposatuko zaio kontseilukide izatea.

- Comunicación a niños/as y familias: se comunicará a las familias y a los centros la relación de participantes que formarán parte del grupo. Al mismo tiempo, se informará a los nuevos miembros del Consejo de su elección a través de sus tutores. Si algún niño o niña no quisiera participar, se propondrá como miembro al siguiente niño o niña de la lista.

- Harrera bilerak: behin-betiko taldea osatu ondoren, harrera bilerak antolatuko dira kontseilukide berriekin eta beraien guraso edo tutore legalekin. Bilera horretan proiektuaren inguruko informazioa azalduko da eta beharrezko baimenak sinatuko dira (komunikazioa, irudia erabiltzea…). Galdakaoko auzoen sakabanaketa dela eta, 3 harrera bilera egingo dira: bata Aperribain, bigarrena Usansolon eta hirugarrena herri-zentroan.

- Reuniones de acogida: una vez constituido el equipo definitivo, se organizarán reuniones de acogida con las y los nuevos miembros del Consejo y sus padres/madres o personas tutoras legales. En dicha reunión se dará la información referida al proyecto y se firmarán los permisos necesarios (comunicación, uso de a imagen…). Debido a la dispersión de los barrios de Galdakao se celebrarán 3 reuniones de acogida, una en Aperribai, la segunda en Usansolo y la tercera en el centro urbano.

2.3. Dinamizazioa

Proiektua ikasturtearekin batera garatuko da, hau da, irailan hasi eta ekainan amaitu. Lan-saioak hilean behin egingo dira, aurretiaz finkatutako egutegian. Saio bakoitzaren asteguna aldatuz joango da, umeek beti ikasgai bera galdu ez dezaten.

Kontseiluak goizeko eskola-ordutegian funtzionatuko du, baina eskolaz kanpo garatuko da. Saioa dagoen egunetan, haurrak eskoletan jasoko dira autobusez edo oinez eramango dira bilkura lekura. Saioa bukatzean, autobusean bueltatuko dira eskolara. Betiere, helduen

2.3. Dinamización

El proyecto se desarrollará a lo largo del curso escolar, es decir, desde septiembre hasta junio. Las sesiones de trabajo se realizarán mensualmente, en el calendario previamente establecido. El día de la semana de cada sesión irá cambiando para que los niños y niñas no pierdan siempre la misma asignatura.

El Consejo funcionará en horario escolar de mañana, pero se desarrollará fuera de la escuela. Los días de la sesión los niños/as serán recogidos en las clases y se desplazarán en autobús o a pié hasta el lugar de la reunión. Al finalizar la sesión, volverán en el autobús. Siempre bajo vigilancia

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 12

zaintzapean. Bilkura lekuari dagokionez, saioetan zehar aldatuz joango da herriko auzo ezberdinetan zehar mugituz. Auzoetako ekipamendu publikoak baliatuko dira lan-saioak garatzeko.

Haurren Kontseiluko lan-saio presentzialak egingo dira hilero, 2 orduko iraupena izango dutenak. Saio horien edukiak zehaztu beharko diren arren, hurrengoei denbora eskaintzea gomendatzen da:

- Talde izaera lantzea: Umeak elkar-ezagutu eta talde izaera lantzea, elkarrekin lan egiteko baldintzak adostuz.

- Gaien hautaketa: Ikasturtean landuko den/diren gaiak hautatu eta azaltzea, gai horrekiko/horiekiko ulerkera komuna landuz.

- Herriko eragileekin elkarlana: Gaiaren inguruan lan egiten duen herriko eragile batekin bildu eta elkarlanean aritzea.
- Aurkezpena: Landutakoari buruzko azken proposamena aurkeztea alkateari eta dagokion arduradun tekniko edo politikoari.
- Ospatzea: Taldearen ibilbidea eta egindako lana ospatzea, ikasturteko ibilbidea balorean jarriz.
- Baloratzea: Taldearen funtzionamendua umeekin batera ebaluatzea, aurrera begirako ikaspenak eratortzeko.

2.4. Kontseiluaren harreman sarea

Udalarekin

Udalak hurrengo kopromisoak hartzen ditu:

- Kontseiluak egindako proposameak aztertu eta horiei erantzungo die, era publiko batean. Urtean gehienez 5 proposamen aztertzeko konpromisoa hartukko du.
- Alkatea edo haren ordez izendatutako zinegotzia, berak ala Kontseiluak berak eskatuta, Kotseilura bertaratuko da ikasturteko une desberdinetan.
- Udaleko teknikariak Kontseiluarekin bilduko dira Kontseiluaren eskariz eta begirada teknikoa beharrezkoa denean.

Proiektuaren koordinazioa hurrengoen bitartez garatuko da:

de adultos. En cuanto al lugar de reunión, a lo largo de las sesiones irá cambiando trasladándose a los diferentes barrios de la localidad. Se utilizarán equipamientos públicos de los barrios para el desarrollo de las sesiones de trabajo.

Se realizarán sesiones de trabajo presenciales mensuales en el Consejo de la Infancia, con una duración de 2 horas. Aunque habrá que concretar los contenidos de estas sesiones, se recomienda dedicar tiempo a las siguientes:

- Trabajar el carácter de grupo: Trabajar el conocimiento mutuo y el carácter de grupo de los niños y niñas, acordando las condiciones para trabajar juntos.
- Selección de temas: selección y exposición de los temas que se van a trabajar en el curso, trabajando una comprensión común a este/os tema/s.
- Colaboración con agentes locales: reunirse y colaborar con un agente local que trabaje en la materia.
- Presentación: Presentar una propuesta final de lo trabajado al Alcalde y al responsable técnico o político correspondiente.
- Celebración: celebración de la trayectoria del grupo y del trabajo realizado poniendo en valor la trayectoria del curso.
- Valorar: evaluar con los niños y niñas el funcionamiento del grupo para derivar aprendizajes prospectivos.

2.4. Red de relaciones del Consejo

Con el ayuntamiento

El Ayuntamiento se compromete a lo siguiente:

- Estudiará y responderá de manera pública las propuestas realizadas desde el Consejo, con un máximo de 5 propuestas por curso escolar.
- El Alcalde o alcaldesa y/o la concejalía delegada de Participación, a petición propia o del Consejo, mantendrán un contacto directo con el órgano en diferentes momentos del curso.
- El personal técnico municipal se reunirá con el Consejo cuando éste así lo requiera y sea necesario un contraste técnico.

La coordinación del proyecto se desarrollará a través de:

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 12

- Koordinazio Orokorra: Parte-hartze Arloa. Hauxe izango da irterlokutore nagusia proiektu honetan.
- Jarraipena eta ebaluazioa: Parte-hartze, Gazteria eta Hezkuntza eta euskara sailek osatutako taldea.

- Coordinación general: Área de Participación. Este será el principal irterlocutor de este proyecto.
- Seguimiento y evaluación: grupo formado por los departamentos de Participación, Juventud y Educación y Euskara.

Ikastetxeekin

Proiektuaren garapenean zehar ikastetxeekin koordinatuta lan egingo da. Deialdia eta eraketa fasea izango dira koordinazio une nagusiak. Ikasturtean zehar proiektuaren inguruko informazioa helaraziko zaie ikastetxeei, eta behar puntualen arabera ere elkarlanean lan egingo da.

Deialdi- eta osaera-fasean ekintza hauek egingo dira:

- Urteko egutegiaren kontrastea.
- Proiektuaren inguruko informazioa gurasoei azaldu edo helaraztea.
- Deialdi-fasean dauden ikasleentzako aurkezpenak ahalbidetzea eta horretarako koordinazioa (aurkezpenen prestaketa eta garapena bidelaguntza egingo duen taldearen esku geratuko da).
- Hautatuak izan diren umeak jakinaraztea.

Proiektuaren garapenean zehar ekintza hauek egingo dira:

- Umeen asistentzia ahalbidetzea egutegian aurreikusitako saioetara.
- Nahi izanez gero, saioen artean Kontseiluko gaien inguruko lanketak egitea klasean. Bide hau jorratu nahi duten ikastetxeekin lan egingo da. Parte-hartze plataforma lanketa hau egitreko tresna nagusia izango da.
- Ikasturte bukaeran ikastetxe arduradun guztien arteko ebaluazio saioan parte-hartzea.

Familiekin

Familiei proiektuari eta haren funtzionamenduari buruzko informazioa helaraziko zaie, bereziki izena emateko adinean dauden seme-alabak dituztenei. Informazio hori ikastetxeen bitartez jasoko dute.

Con los centros escolares

A lo largo del desarrollo del proyecto se trabajará en coordinación con los centros escolares. La convocatoria y la fase de constitución serán los principales momentos de coordinación. A lo largo del curso se trasladará a los centros información sobre el proyecto y se trabajará de forma colaborativa en función de las necesidades puntuales.

En la fase de convocatoria y composición se realizarán las siguientes acciones:

- Contraste del calendario anual.
- Información sobre el proyecto a los padres y madres.
- Posibilitar y coordinar las presentaciones para el alumnado en fase de convocatoria (la preparación y el desarrollo de las presentaciones quedará en manos del equipo de acompañamiento).
- Notificación de los niños y niñas seleccionadas.

A lo largo del desarrollo del proyecto se realizarán las siguientes acciones:

- Facilitar la asistencia de los niños y niñas a las sesiones previstas en el calendario.
- Si se desea, realizar entre sesiones un trabajo sobre los temas del Consejo en clase. Se trabajará con los centros que quieran hacerlo. La plataforma de participación será la herramienta principal para esta elaboración.
- Participación en la sesión de evaluación entre todos los centros responsables al final del curso.

Con las familias

Se facilitará información a las familias sobre el proyecto y su funcionamiento, especialmente a las familias con hijos e hijas en edad de inscripción. Recibirán esta información a través de los centros escolares.

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 12

Herriko elkarte eta eragileekin

Kontseiluan landuko diren gaien eta proposamenen lanketarako herriko elkarteekin elkarlana sustatuko da, ahal den neurrian.

2.5. Parte-hartze plataforma

Haurren Kontseiluak, parte hartzeko organo gisa, gune bat du erabaki.galdakao.eus parte-hartze plataforman.

Plataformak osagai hauek izango ditu:

- Haurren Kontseiluari buruzko informazio orokorra.
- Kontseiluaren bilerei buruzko informazioa (iraganeko eta etorkizuneko deialdiak, lekua, eguna eta ordua, bilkuren aktak eta informazio grafikoa).
- Kontseilurako proposamenen osagaia.
- Kontseiluak Udalari egindako proposamenen osagaia.

Kontratuaren ardura duen erakundeak plataformaren erabilerari buruzko prestakuntza jasoko du hori administratzeko.

2.6. Jarraipena

Proiektuaren jarraipena egiteko hurrengoak lantzea gomendatzen da:

- Udal proiektuekin konektatzea

Gazteria, Parte-hartzea eta Hezkuntza eta euskara sailek aurreikusita dituzten proiektuen arteko sinergiak detektatzea, Kontseilua beste udal proiektu batzuekin konektatzeko.

- Proposamenen bideragarritasuna lantzea

Ume-taldean lantzen den gaiaren arabera, Udal barruan gaia bideratzeko sailak edo/eta pertsonak identifikatzea, eta proposamenak jarraitu beharreko ibilbidea marraztea.

Con asociaciones y agentes locales

Se fomentará, en la medida de lo posible, la colaboración con las asociaciones locales para la elaboración de los temas y propuestas que se traten en el Consejo.

2.5. Plataforma de participación

El Consejo de Infancia, como órgano de participación, dispone de un espacio en la plataforma de participación erabaki.galdakao.eus.

La plataforma está configurada con los siguientes componentes:

- Información genérica sobre el Consejo de Infancia.
- Información sobre las sesiones del Consejo (convocatorias pasadas y futuras, con lugar, día y hora, actas de las sesiones e infomación gráfica).
- Componente de propuestas para el Consejo.
- Componente de propuestas del Consejo hacia el Ayuntamiento.

La entidad responsable del contrato recibirá formación sobre el uso de la plataforma para poder administrarla.

2.6. Seguimiento

Para el seguimiento del proyecto se recomienda trabajar lo siguiente:

- Su conexión con proyectos municipales

Detectar sinergias entre los proyectos previstos por los departamentos de Juventud, Participación y Educación y Euskara para la conexión del Consejo con otros proyectos municipales.

- Elaboración de la viabilidad de las propuestas

En función del tema que se trate en el grupo infantil, identificar departamentos y/o personas para la derivación dentro del Ayuntamiento y dibujar el itinerario a seguir por la propuesta.

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 12

- Ebaluazioa eta hobekuntzak

Ikasturte bukaeran, egindakoaren errepasoa egin eta balorazio bat egitea. Ebaluazio horretatik 2023/2024 ikasturtera begira egin beharreko hobekuntzak eratorriko dira.

- Evaluación y mejoras

Al final del curso, hacer un repaso y valoración de lo realizado. De esta evaluación se derivarán las mejoras a realizar de cara al curso 2023/2024.

2.7. Kontseiluaren lanerako oinarrizko irizpideak

- Proiektu txikietatik abiatzea: egingarriak diren eta lurreratuta dauden erronkekin lan egingo da, parte-hartzetik eratorritako emaitzak konkretuak eta aplikagarriak izan daitezen.
- Gardentasuna lantzea: parte-hartze markoaren eta ondorengo prozesuen inguruko informazioa emango da, eta egindako proposamenen jarraipena egiteko mekanismoak ahalbidetuko dira.
- Itzulera bermatzea: proposamen orori erantzun arrazoitua eta garatua emango zaio, erantzun horretara heltzeko egin den ibilbidea eta inplikatutako pertsona edo eragileak ezagutaraziz. Honetarako, Kontseiluak Udalari egiten dizkion proposamenak ahalik eta landuen egotea beharrezkoa da.
- Kontseiluaren jardueran bi zehar lerro nagusi kontuan hartuko dira:

Hizkuntza-normalizazioa. Kontseilua hizkuntzaren normalizazioaren arloan dagoen arau esparruarekin eta indarrean dauden udalaren nahiz udalaz gaindiko erakundeen planekin koherentzia izan behar du. Beraz, umeen hizkuntza-eskubideei erreparatu behar zaie, euskararen aldeko ikuspegi adeitsua sustatu behar da, baita beraren erabilera eta ezagutza ere. Ildo horri eutsiz, Kontseiluaren jarduera umeen euskararen ezagutza maila desberdinetara moldatuko da. Euskara ez jakitea edo hizkiuntzan erraztasuna ez izatea ez da Kontseiluan normaltasunez parte hartzeko oztopoa izan behar.

Aukera berdintasuna. Aukera berdintasunaren kontzeptuari buruzko joera desberdinak kontuan hartu behar ditugu. Sarri emakumeen eta gizonen

2.7. Criterios básicos de trabajo del Consejo

- Partir de pequeños proyectos: se trabajará con retos factibles, para que los resultados derivados de su participación sean concretos y aplicables.
- Trabajar la transparencia: se informará sobre el marco de participación y los procesos posteriores y se facilitarán mecanismos de seguimiento de las propuestas realizadas.
- Garantizar el retorno: se dará una respuesta razonada y desarrollada a todas las propuestas, dando a conocer el recorrido realizado para llegar a dicha respuesta y las personas o agentes implicados. Para ello, es necesario que las propuestas que realice el Consejo al Ayuntamiento estén trabajadas y lo más elaboradas posible.
- En la actividad del Consejo se tendrán en cuenta dos líneas transversales principales:

Normalización lingüística. El Consejo ha de ser coherente con el marco normativo existente en materia de normalización lingüística y con los planes municipales y supramunicipales vigentes. Por lo tanto, hay que prestar atención a los derechos lingüísticos de los niños, fomentar una visión cordial a favor del euskera, así como su uso y conocimiento. En este sentido, la actividad del Consejo se adaptará a los diferentes niveles de conocimiento del euskera de los niños/as. El desconocimiento o la falta de fluidez lingüística no debe ser un obstáculo para la participación normalizada en el Consejo.

Igualdad de oportunidades. Debemos tener en cuenta las diferentes tendencias sobre el concepto de igualdad de oportunidades. A

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 12

arteko aukera berdintasuna aipatzen du. Baina berdintasunari buruzko kontzeptua urrunago doa eta baldintza sozioekonomikoen, etnikoen, jatorrizkoen, gaitasunen eta abarren arabera, baliabideak lortzeko orduan egoera desberdinak barne hartzen ditu. Hala, Kontseiluaren lanean ikuspuntu guztietatik berdintasuna sustatu behar da.

menudo se refiere a la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. Pero el concepto de igualdad va más allá y en función de las condiciones socioeconómicas, étnicas, de origen, capacidades, etc. incluye situaciones diferentes a la hora de acceder a los recursos. Así, en el trabajo del Consejo se debe promover la igualdad desde todos los puntos de vista.

3. Kontratuaren helburuak

3. Objetivos del contrato

3.1. Helburu nagusia

Kontratu honen helburu nagusia Galdakaoko Haurren Kontseilua dinamizatzeada.

3.1. Objetivo principal

El objeto principal de este contrato es la dinamización del Consejo de la Infancia de Galdakao.

3.2. Helburu zehatzak. Adjudikaziodunak egin beharreko zereginak.

- Oro har, proiektuaren idazkaritza teniko lana egitea.
- Parte-hartze eta Gardentasun arloarekin adostea Kontseiluari dagokion guztia.
- Kontseiluaren dinamizazio lanetan beharrezkoa den dokumentazio guztia euskaraz eta, beharezoa denean, gazteleraz lantzea.
- Kontseilua abiatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren eragileekin harremana lantzea (ikastetxeak, familiak, haurrak, gizarte-eragileak, udala…)
- Kontseiluaren jarduera dinamizatzea (saioak dinamizatzea, Kontseiluaren jarduera parte-hartze plataformaren bidez dinamizatzea Kontseiluaren eta bere ekosistemaren arteko harremana dinamizatzea…)
- Honako zeregin hauez arduratzea: aurkezpenak geletan, umeen aukeraketa prozesua, aukeratutako umeen familiei proiektua aurkeztea, kontu logistikoez arduratzea (autobusak, kontseilua biltzeko lokalen erreserbak…), prozesuan zehar beharrezkoa den dokumentazioa egitea (aktak, bileretarako deialdiak, prozesua dokumentatzea…), etab.
- Ebaluazioa egitea. Ikasturtea amaitutakoan, ebaluazioa egingo da.
- Behar bereziak dituzten haurrentzako laguntzen kudeaketa (elkarrizketak senideekin, neurriak eta beharrezko laguntzak erabakitzea eta horien kudeakea osoa).

3.2. Objetivos específicos. Tareas a desarrollar por el adjudicatario.

- En general, realizar la secretaría técnica del proyecto.
- Acordar con el Área de Participación y Transparencia todo lo relativo al funcionamiento del Consejo de Infancia.
- Elaborar toda la documentación necesaria en la dinamización del consejo en euskera y, cuando sea necesario, también en castellano.
- Llevar a cabo la interlocución con todos los agentes implicados en la puesta en marcha y desarrollo del Consejo (centros escolarres, familias, niños y niñas, agentes sociales, Ayuntamiento…)
- Dinamizar la actividad del consejo (dinamizar las sesiones, dinamizar la actividad del Consejo a través de la plataforma de participación, dinamizar la relación entre el consejo y su ecosistema…)
- Tareas de presentación en las aulas, proceso de selección de niños y niñas, presentación del proyecto a las familias de los niños y niñas seleccionados, aspectos logísticos (autobuses, reservas de locales para la reunión del Consejo…), elaboración de la documentación necesaria a lo largo del proceso (actas, convocatorias de reuniones, documentación del proceso…), etc.
- Evaluación. En junio, al finalizar el curso escolar, se realizará la evaluación.
- Gestionar los apoyos a los niños y niñas con necesidades especiales (entrevistas con las familias, determinación de las medidas o apoyos necesarios y gestión integral de éstos)

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 12

- Parte-hartze plataformaren administratzaile rola kudeatzea Haurren Kontseiluaren espazioari dagokionean.

- Ejercer el rol de administrador de la plataforma de participación en lo relativo al espacio del Consejo de Infancia.

4. Zerbitzuak beharrezkoak diren giza-baliabideak

Esleipendunak gutxienez bost langile jarri beharko ditu kontratua gauzatzeko, betiere zuzeneko esku-hartzearen uneetan 12 umeko pertsona 1eko ratioa errespetatuta.

Era berean, pertsona batek gutxienez unibertsitate-graduko titulazioa izan beharko du gizarte-zientziekin, hezkuntza-zientziekin edo lotutako arloetan.

Gainerako taldekideek, gutxienez, aisialdiko titulazioa izan beharko dute.

Taldeko kide guztiek C1 maila (edo baliokidea) edo goragoko titulazioa eduki beharko dute.

4. Personal destinado al servicio

El adjudicatario deberá destinar, al menos, cinco personas a la ejecución del contrato, respetado siempre un ratio mínimo de 1 persona por cada 12 niños y niñas en los momentos de intervención directa.

Asmismo, como mínimo, una de las personas deberá disponer de titulación de Grado Universitario en áreas relacionadas con ciencias sociales, ciencias de la educación o afínes.

El resto del equipo deberá estar en posesión, como mínimo, de la titulación en Tiempo Libre.

Todas las personas del equipo deberán estar en posesión del Nivel C1 (o equivalente) o superior.

5. Jabetza eta informazioaren transferentzia

5.1. Jabetza intelektuala

Kontratua amaitzean, sortutako dokumentazioaren gaineko eskubideak eta egindako lanen garapena eta emaitzak Galdakaoko Udalari dagozkio esklusiboki, eta, beraz, bere esku geratuko dira produktuak erreproduzitzeko, banatzeko, jakinarazteko eta erabat edo partzialki eraldatzeko eskubideak.

Aurrekoari dagokionez, enpresa esleipendunak ezin izango ditu gorde, erabili edo hirugarrenei laga egindako lanen dokumentazioa, ezta prozesuak eta emaitzak ere, horiek erabili nahi izanez gero, Galdakaoko Udalaren idatzizko berariazko baimena izan beharko du, aldez aurretik eskaera formala eginda eta helburua argi eta garbi adierazita.

5. Propiedad y transferencia de información

5.1. Propiedad intelectual

A la finalización del contrato, los derechos sobre la documentación generada y el desarrollo y resultados de los trabajos realizados corresponderán en exclusiva al Ayuntamiento de Galdakao, quedando, por tanto, en sus manos los derechos de reproducción, distribución, comunicación y transformación total o parcial de los productos.

En relación con lo anterior, la empresa adjudicataria no podrá conservar, hacer uso o ceder a terceros ni la documentación, ni los procesos y resultado de los trabajos realizados, en caso de querer hacer uso de los mismos, deberá contar con el consentimiento expreso por escrito por parte del Ayuntamiento de Galdakao, previa petición formal, indicando claramente la finalidad.

5.2. Informazio-transferentzia

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du une oro Galdakaoko Udalari eta hark izendatutako pertsonari lanen garapenari buruz

5.2. Transferencia de información

La empresa adjudicataria se compromete a facilitar en todo momento al Ayuntamiento de Galdakao y a la persona designada por el mismo,

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 12

eskatzen zaien informazio eta datu guztiak emateko, bai eta sor daitezkeen arazoei buruz eta horiek konpontzeko erabilitako metodo, tresna eta bestelako baliabideei buruz ere.

5.3. Datuen babesa eta konfidentzialtasuna

Enpresa esleipendunak Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzeko konpromisoa hartzen du.

Hori oinarri hartuta, ulertzen da kontratuaren exekuzioan bildutako datu guztiak konfidentzialak direla. Ildo horretan, datu pertsonalak eta Galdakaoko Udalaren beraren jarduerari buruzkoak eman diren jarduera garatzeko baino ez dira erabiliko. Hala, enpresa esleipendunak horien gaineko sekretu profesionala gordetzeko betebeharra bete beharko du, ez dizkie hirugarrenei laga beharko eta ez ditu kontratuan ezarritako helburuetarako erabili beharko adostutako zerbitzuak betetzeko. Betebehar hori langileei helarazi beharko die, eta kontratuak irauten duen bitartean mantenduko da, bai eta ondoren ere, kontratua amaitu ondoren.

6. Lizitazioa

Lizitazioa lehiaketa ireki arruntaren bidez ebatziko da, 34.000 euroko gehieneko zenbatekoarekin, % 21eko BEZa barne hartuta, kontratu-urte bakoitzeko.

toda la información y datos que se soliciten sobre el desarrollo de los trabajos, así como de los problemas que puedan surgir y de los métodos, herramientas y otros recursos empleados para resolverlos

5.3. Protección de datos y confidencialidad

La empresa adjudicataria se compromete al cumplimiento de la LOPD, Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

En base a ello, se entiende que todos los datos facilitados en la ejecución el contrato son confidenciales. En este sentido, la utilización de los datos de carácter personal y sobre la actividad del propio Ayuntamiento de Galdakao serán de uso exclusivo para el desarrollo de la actividad para la que son facilitados. Así, la empresa adjudicataria deberá cumplir con la obligación de guardar secreto profesional sobre los mismos, no cederlos a terceros y no utilizarlos para fines distintos a los establecidos en el contrato para cumplir con los servicios acordados. Obligación que deberá trasladar a sus trabajadores y trabajadoras y que se mantiene durante la duración del contrato y posteriormente, tras la finalización del mismo.

6. Licitación

La licitación se resolverá por el procedimiento de concurso abierto ordinario por un importe máximo de 34.000 euros, IVA del 21% incluido, por cada año de contrato.

Baliozkotze Kod.: 6WQYY4XJR664A7SAGM27CCADQ
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 12